# Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua

**Aplikatzen den arautegia**

205/2008 Foru Dekretua, abenduaren 22koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalei buruzko araudia onetsi duena (martxoaren 26ko 44/2013 Foru Dekretuak aldatu du eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua sortzeko; horrez gainera azaroaren 19ko 140/2013 Foru Dekretua ere aldatu.martxoaren 26ko 44/2013 Foru Dekretuaren XI 1.k aldatu aldatu du 144/2014 FDko XG 4.

**Nortzuk arteztu behar duten erregistro-liburua**

- PFEZerako jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoek → Baldin eta ekitaldian Bizkaian izan badira zergadun
- PFEZerako jarduera ekonomikoren bat egiten duten errenta-eratxikipenaren araubideko erakundeek (EEAE) → Zerga-egoitza Bizkaian
- Testamentu-ahalordea erabiltzeko zain egonik PFEZerako jarduera ekonomikoren bat egiten duten jarauntsiek → Zerga-egoitza Bizkaian

Jarduera bat baino gehiago eginez gero, liburu bat bakarrik arteztu behar da jarduera ekonomiko bat alta emanda daukan pertsona, erkidego edo jarauntsi bakoitzeko.

PFEZerako jarduera ekonomikoa ez diren errentamenduak ez dira ezarri behar erregistro-liburuan.

Erregistro-liburua arteztu behar dutenek aitorpen informatiboa aurkeztu behar dute Internet bide (140 eredua).2014.urteari dagokion informazioa ematekoa, PFEZri buruzko 2014ko zegaldiko autolikidazioak aurkezteko epe beraren barruan aurkeztu behar da

**Honez gainera beste liburu batzuk ere arteztu behar dira?**

- BEZeko liburuak ere? → Liburu hau arteztuz gero betetzat jotzen da BEZaren Araudiko 62. artikuluan aipatzen den erregistro-liburuak arteztu beharra.
- Gainera kontabilitatea Merkataritzako Kodearen arabera arteztu behar da? → Zuzeneko zenbatespen arruntaren araubidean egonik merkataritzako jardueraren bat egiten duten pertsonek, EEAEek (errenta-eratxikipenaren araubideko erakundeek) eta jarauntsiek erregistro-liburua ez ezik kontabilitatea ere arteztu behar dute

**2014ko eta 2015ko liburua arteztu beharretik salbu egongo direnak**

- Jarduera 2012an
  - Enpresa jarduerak
    - Zeinuak, indizeak edo moduluak
    - Zuzenekoa edo erraztua → Enpresa jarduera guztien sarreren batura (*) <= 30.000 €
  - Lanbide jarduerak → Lanbide jarduera guztien sarrera guztiak (*) <=6.000 €
  - Jarduerari ekitaldian zehar ekinez gero → Urte osoko zenbatekoa kalkulatu behar da

(*) Sarrera guztiak kalkulatzeko salmentak edo sarrerak, diru-laguntzak, autokontsumoa eta aldi baterako lanerako ezintasunagatiko prestazioak batu behar dira.

Enpresa edo lanbide jardueren sarrerak mugaz gaindikoak izateagatik erregistro-liburua arteztu behar dutenek jarduera guztiak erregistratu behar dituzte bertan.

- Jarduerari 2013/1/1az gero ekin bazaio → Zergapeko hauek ez dute zertan arteztu liburua, 2012an jardueran aritu direnek bezala

Horretatik salbu egon arren BEZaren eta PFEZen inguruko betebehar formalak bete beharko dituzte.

Adibidea: Kepak jarduera hauek egiten ditu:
1) JEZen bi jarduera dauzka alta emanda (2012 baino lehen), bata abokatu modura (sarrerak: 5.000 €; aldi baterako ezintasunagatik prestazioa: 3.000 €) eta bestea "Bestelako kafetegiak eta taberna" epigrafean (sarrerak: 28.000 €).
2) Ondasun-erkidego baten %50 dauka; erkidegoari alta eman zitzaion 2013ko maiatzean "Bestelako kafetegiak eta tabernak" epigrafean (urteko sarrerak: 25.000 €).
3) Testamentu-ahalordea erabiltzeko zain dagoen jarauntsi baten jaraunslea da; alta emanda dago 2012an zeinu, indize eta moduluen araubidean.

2014. urtean:
1) Kepak liburu bat arteztu behar du bi jarduerak erregistratzeko (guztirako sarrerak 6.000 € baino gehiago dira eta).
2) Ondasun-erkidegoan beste liburua batean erregistratu behar du (sarreren urteko zenbatekoa kalkulatu behar da).
3) Jarauntsiagatik ez dauka libururik arteztu beharrik (moduluak 2012an).